




Anjel Lertxundi, aste honetan Donostian. — usoz

'Zu' liburua plazaratu du, emaztearen minbizian oinarritutako lana. Bizitzaren alde egiten du, 'ars vivendi' delakoa aldarrikatzen du

== FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Azaroaren 24an, Anjel Lertxundik (Ordo, 1948) 'Zu' aurkeztu zuen, halako liburu hibrido bat, dietariotik eta saiakeratik asko danka, baina narratibitate handikoa, hala ere. Gai gaixotasuna da. Kontua da idazlearen emazteari pankreako minbizia diagnostikatu ziotela 2013ko udan, eta hain zuzen ere gaitz hori izan du akulu idazle veteranoak.

Minbizi mota hau txarrenetakoa da, baina emazteak orain arte ondo egin dio aurre. «Kimio-saioak eta ospitaleko joan-etorriak... hori izan dadila konturik okerreana», dio Lertxundik irribartetsu.

— Zer esan dizu jendeak, zer harreman izan du liburua?

— Nire hurbilekoek bazekiten zer asmotan genbiltzan, eta testu batzuk ezagutzen zituzten argitaratu aurretik; alde horretatik, ez da sorpresarik egon. Nire harriidurarako, harretarik errekurrenteena izan da esker ona ematearena; batzuetan minbiziari pertsonalki afektatutako jendearen esker ona izan da, eta beste batzuek esan didatenez, minbizi eta gaixotasuna ulertzen lagundu omen die liburua.

— Medikuen sailetik jaso al duzu erantzunik? Izan ere, sendagileak askotan aipatzen dituzu zure goetetatik.

— Ospitaleko onkologo batek, erreferentzia den batek, esan zidan liburu inportantea izan zitekeela, bai onkologian eta bai medikuntzaren sailean oro har. Eskertzen omen zuen liburua dakarren mezu positibo hori. Ez da horretarako idatzitako liburua, baina badirudi alderdi horretatik izan dezakeela bere ibilbidea. Hala ere, sekula ez da jakiten zer ibilbide izango duen obra batek.

— Ahaztu baino lehenago: Espainiako sari nazionala irabazi zenuen 'Erkarentuaren paperak' liburuari esker. Gaztelaniazko bertsoa ere ateratu zenuen gero. Zure hitzetan esanda, zer ibilbide izan zuen? Obrak hartu al zuen bigarren bizialdi bat?

— Liburuak, beste bizialdi bat baino gehiago, bizi bat hartu zuen. Egia da erdarazko itzulpena egin zegoela lehenik, eta asmoa bazegoen bestela ere argitaratzeko, baina hautagai izendatu zutenean, edizio azkar bat egin zen, epaimahaikoek eskuratu izan zezaten.

— Eta 'Zu' hau, izango al da gaztelaniaz ere?

— Bai, apirilko feriarako aterako da. Gerardo Markuleta egiten ari da itzulpena.

— Liburuaren azala Antton Olariagarena da, beste hainbatetan bezala. Aspaldiko lankideak zarete. — Neuk nahi izan nuen honetan ere bera izatea azalegilea. Lagunen artean fidelotasun minimo bat ez ba-

«Nik gehiago ikasi dut emaztearengandik, berak nigandik baino. Eta esan dit liburua opari bat dela»

Anjel Lertxundi. Idazlea

dago, zer lagunarte klase da hori? Beti izan gara elkarrenganako leial, eta horri eutsi egin behar zaio. Berak beldur handia zion kolore urdinari, ordenagailutik gero paperera pasa-tzean desfase batzuk gertatzen direla, baina bai, azal potentea gelditu da.

~ Liburuak on egin dio emazteari?

~ Bai, berak esaten du opari bat dela. Besteak beste, liburu hau ez zen izango kalean berak animatu ez baidin. Apunte batzuk hartzen hasi nintzen, idazle batengan normala den bezala. Arazo filosofiko eta existentzialak... eta fikzioak... ez begira da bat ematea zure ofiziotik... nik ezinezkotzat jotzen dut. Beste gauza bat da egiten duzun lan pertsonal hori gero plazaratzen duzun ala ez. Horretan, emaztea izan dut konplizetrik handiena.

~ Halako batean, esaten duzu obra hau aitortza bat dela, eta aitortzak bertigoa ematen duela.

~ Egin litekeen ekintza subjektiborik handiena da aitortza. Noski, aitortza benetako batez ari gara. Aitortza: subjektibitatez erabat bizirik uzten da. Eta gainera, biluzte hau giza-ze txiki batean egin dut, eta espozizio publiko handia gertatu da. Ez bakarrik hiri handi batean bizi. Arriku eta eragozpen batzuk

bazeuden, baina aldi berean hori dena positibo izan daiteke, eta halaxe gertatu zigu, zeren lehenaz gain solidaritate handi bat sumatu dugu geure inguruan.

~ Behin baino gehiagotan esaten duzu batzuetan emaztea baino eroriago ibili zarela, ardi galdu bat bezala, haren atzetik, ospitaleko korridoreetan. Kolpea zuretzat ere latza izan da.

~ Bai, hala da, hain zuzen ere kolpeaz idatzi nuen lehenbiziko testua. Minbiziaz alabista jaso eta, handik gutxi, itsasora joaten naiz baina-tzera, itsasoa oso gogorra dago eta, nolabait, hantxe azaleratzen dut nire amorrazioa. Noski, denontzat izan zen kolpe handia, baina hasierako eszena hartan, non komunikatzen ari garen familiakoel medikuak zer esan digun, adoretuena bera dago. Azkenean, nik bearen-gandik gehiago ikasi dut berak nigandik baino. Oso azkar asumitu zuten zer zeukan, eta hor badago elementu bat oso inportantea existentzialki, eta da gaitza bizitzaren parte bat dela, eta hori ere bizi egin behar dela. Pentsatu behar duzu irabazi egingo duzula, eta irabazten ez baduzu ere irabazi egingo duzula, bizitzaren alde egiten ari zarela. Etorriko da azken momentua eta hil egingo naiz, denok hilko ga-

relako. Jarrera da bizi-tzaren aldekoa. Liburuan zehar zera diot: gure aszetik plantatzen zuten harekin «ars moriendi» bat lantzearena, hiltzeko prestatzen bizitze hori ez nator bat. Ez, bizitzeko prestatu behar dugu, kontzientzia guztia erekin, eta beste etorriko da. Nire ustez, hiltzeko prestatzea da bizi-tzeko prestatzea; bizitzari egoskor heltzea da gure egitekoa.

~ Ideia hori da, hain zuzen, liburuen ardatzetako bat.

~ Bai, hori da, bai. Euskarri esatera batek gauza bera dio...

~ Bai, «hil arte, bizi».

~ Heriotza momentu bat besterik

«Liburuan dagoen aitortpenak bazituen bere arriskuak, baina solidaritate handia sumatu dugu»

«Gaitza bizitzaren parte bat da, eta hori ere bizi egin behar da»

ez da, eta bizitza, berriz, inapen luze-ko errealitatea.

~ 114. orrialdean hau diozu, apuntatuta baitauek: «Senarra ez dago sekula seguru, eta are gutxiago pozik, egiten duenarekin. Bere buruarekin jarraitzen du borrokari». Hor, nolabait, segurtasunik eza aitortzen ari zara, nahiz ibilbide luze-ko idazlea zaren, gainera eguneroko publikatzen duzuna artikulua egunkari batean... eta hala ere segurtasunik eza...

~ Uste dut segurtasunik antzutu egiten duela, edozein aktibitatean, baina arretgintzan eta idazkuntzan dudarik gabe. Duela gutxi, Harkaitz Canok ere horretaz jardun zuen, liburu berria aurkeztzen ari zela. Esaten zuen amorrazioa ematen diola nabaritzen duenean bere burua orain dela hamar edo hamabost urteko gauza berdinak eginez. Inoiz ez zaude aseta egiten duzunarekin, eta aseko bagina utziko genuke. Azken batean, bizitza ere horixe da: ez zaude ase egin duzunarekin eta gehiago nahi duzu.

~ Orain daukazu trenpu honekin, fikziorako ez zara egongo, seguru asko.

~ Kontua da liburu honetan oso fikzio gutxi dagoela, baina narrazioa dago, eta agian nik aspaldi honetan egin dudana narratzen errealitate-ko, errealitatearen gehien hurbiltzen dena. Eta sintesi lan bat ere egon da; zure istorioak hautatu egiten duzu, estilizatu egiten duzu... hori dena prozesu kreatibo bat da. Arazo literario inportante bat gertatu zitzaizdan: nahi nuen baita ere gogoeta egin, eta horretarako mila modu daude, baina halako batean konturatu nintzen nik neuk neure burua desdoblaturko banu aukerak zabaldu egiten zitela. Halaxe erabaki nuen, bateko senarra izate eta beste-ko idazlea izate, pentsatzen ari dena. Hortik, liburuan ikusten diren lehenengo pertsonaren erabilerak eta hirugarren pertsonaren erabilerak. Egitura horrek, erimotua ematen dio narratzaileari, bestealde, eta gail-

nera hartata aukera dago pasarteak modu autonomoan irakurtzeko, nahi izan ezker. Eskarmentuaren paperak etik nentorren eta hango hantat gauza baliatu ditut hori egin ahal izateko. Eta, halaxe, baita ere, bereizten ditut denbora erreala - gertatzen ari zaiguna - eta pentsamendu eta gogoeten denbora. Klabea izan zen momentu jakin batean narratzailea desdoblaturu nuen.

~ Bai, esan duzuna: batetik senarra, bestetik idazle pentsalarria. Biak bat dira, baina bi funtzio desberdin betetzen dute. Editoreak, inazio Mujika Iraola, esan zuen emazteari Zu izendatzea aurikuntza handia izan dela.

~ Bai, Zu horrek bestetazuna adierazten du, «la otredad». Eta gainera, Zu horren barruan pertsona asko kabi-tzen dira.

~ Adibidez, minbizia jasaten ari diren guztiak. Beste gauza bat: minbiziaz alabista jaso eta gero pentsatzen dut zure irakurketak asko aldatuko zituela.

~ Bai, baina lehendabiziko bi-hiru hilaletan, ospitaleko joan-etorrietan-eta, artean diagnostiko erabateko ez geneukala, gauza arinak nahi nituen irakurri, eta niretzat arinak bibliofiariaren zerikusia daukatenak dira. Asko entretentzen nauden gaia da. Momentu jakin batean, etorri zitzaidan burura gauza bat, nik gaitzen irakurritako Thomas Mann-en «Mendi magiko»-ko pasarte bat, alegia, nola sanatorio-riko hildakoak laran jaisten zituzten, beste gaixoen ezkutuan, beldur ez daitezke. Pasarte hura bizitza-ri ekin nion, inpaktatu egin baininduen bere gaitza. Eta lehenbiziko etapa hartan, lehendik irakurritak nirean liburu batzuk irakurri nituen: Camus-en «Izurrilea», Daniel Defoe-en «El diario del año de la peste»... eta, ia aldi berean, ekin nion beste liburu batzuk bilatzeari, adibidez minbiziaz zentratutakoak. Bat behintzat ebitazina zen, lehendik irakurria bainekuan, Susan Sontag-en «Gaitza eta bere metaforak».



ZU
ANJEL LERTXUNDI
Argitaletxea: Eren.
Orrialdeak: 279.
Prezioa: 19 euro.

«Bizitzaren misterioa zer da?; bizitzara boteak izanak, eta hil beharra»

:: F. I.

~ Ez nekien latinezko «cancer» hitzak «karramarro» esan nahi duela. Zuk hori ba al zenekien lehen-dik?

~ Bai, eta besteak beste, kontu hori imanol Zurutzaren «Errautsera arteko sugara»-n ere agertzen da. Non-bait, aspaldiko garai haiekian uste zuten gaitz honek heldu egiten diola pertsonari karramarro batek bezala. Nik, hala ere, gehiago ikusten dut akain bat bezala, «garrapata» bat bezala. Gainera, orain akainarena

esaten dudalarik, animalia hau gorputzetik askatzeko, sistematik one-na erretzea omen da, hartu zigarrak eta harekin erre.

~ Eta zigarrak, berriz, gaixotasu-nerako bide daukagu.

~ Bai, baina ni gehiago pentsatzen ari nintzen radioterapia eta kimioterapia, horien bidez zelulak erre egiten ditugulako.

~ Imanol Zurutzaren liburuak oso adoretua izan zen, oso ausarta. Hark, berriz, emaztea hil ostean idatzi zuen.

~ Hor kontu batek inpaktatu nintzen, eta da distantzia. Harrigarria da zer trenpu neurtuarekin heltzen dion heriotzaren gaiari. Liburuak, tamalez, oihartzun mugatua izan zuen, oso ahoz ahokoa. Eta aipatu nahi dut Joxe Aranzabalena ere, hori ere lan ederak.

~ Esana duzu poesia gehiago irakurtzen duzula orain, eta Heinrich Böll-ek esandako kontu bat ere gogorazki diguzu: poetak heriotzaren misterioaren aurrez aurre jartzen gaituela.

~ Bai, zeren misterioak hitz egiteko guk daukagun baliabide inportantea hitza da. Eta hitza, biluzien, poesian agertzen da. Azkenean, bizitzaren misterioa zer da?; bizitzara boteak izanak, eta hil beharra.

~ Irudipena izan dut orain ere hitz berri batzuk sortu dituzula.

~ Bai badaude, orain ez naiz gogor-tzen, baina adibidez Jaungoikoa-ri buruz ari naizen bakarkizeta luze horretan badira juramentu pare bat nire kabutatik sortuak. Baina ez daukat egile-eskubiderik, eskubide horiek hizkuntza asmatu zutenare-nak dira. Batzuetan sorpresak har-zen dituzu: herenegun, zutabe bat idazten ari nintzela, «xoriburu» hitz-erabili behar nuen, baina ez zit-zaidan asko gustatzen, «kaskarina» inadokitzen zidalako, eta pentsatu nuen «haizeburu» hitza ipintzea. Iru-

ditu zitzaidan beharbada hitz berria izango zela, baina guk nintzen «Oro-tariko Euskal Hiztegia» ikustera eta hantxe zegoen. Hizkuntzaren meka-nismo batzuk imitatuz beste auke-ra batzuk probatzea da kontua. Oso erraza da asmatzea, baina erronka beste bat da: zuk asmatzen duzun hori irakurleari konturatu gabe pa-satzea, irakurlea ez jabetzea hitz be-ri bat dela, alegia. Hori da niretzat joko polita.

~ Inoiz, lortuko zenuen.

~ Adibidez, ibilbide luzea izan du «konpontxo egin» esamoldeak. Ez da nik asmatua, baina bai nik neure inguruan soilik entzundakoa. Da adierazteko batzuk elkartzen dire-nean besteren bati kontra egiteko. Inoiz entzun ez duenak ere laster ulertzen du, hitz berria izan dai-tekeela batere pentsatu gabe.